

aike!

txorierriko aldizkaria



Gure merkataritza,

Parajekoa eta kalidadekoa



Nabarmena, teknologiarengatik

Nabarmena, prezioarengatik



Zerbitzu profesionala, salmentaren aurretik, bitartean eta ostean

NEKAZARITZA ETA LOREZAINZARAKO TRESNERIA SALDU ETA KONPONTZEN DUGU

GURE INSTALAZIOAK BISITATU ETA EZAGUTU UDAZKENEKO KANPAINAREN ESKAINTZAK ETA NOBEDADEAK!
LOIUKO AIREPORTUAREN ONDOAN GAUDE

*Indiak ez du zertan eskaintzarekin bat etorri

agrojardin
Astikene

Astikene industrialdea,
Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Belén Gana, Jabi Agirre, Sabin Arana, Aner Mentxaka, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobietta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Olalla Elorriaga



26 Igor García



30 Korrika 18

-  4 Eritxia
-  5 Laburrak eta albisteak
-  11 Iruditan... Elurra Larrabemendin
-  12 Gurean izan da... Olalla Elorriaga, ardoan aditua
-  14 Gaztea eta... Gorka Bilbao, entrenatzailea
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Txorierriko merkataritza
-  24 Publierreportajea
-  26 Igor García, zine-zuzendaria
-  28 Txorierriri ezagutu... Zamudio-Zugasti (III)
-  30 Korrika 18
-  32 Berbalagunen txokoa
-  34 Aikorritzetan... Euskararekin ala euskaraz bizi?
-  35 Zorionak!
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda

GOI-ALDE

Pelukeria

Estetika

94 455 81 44

Angulen 2. beheia Larrabetzu-Bizkaia

FRUTAK BARAZKIAK

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - beheia | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu

656 786 744 94 455 80 20

**BELEN GANA***(Txepetxa AEK-ko euskaltegiaren arduraduna)*

Parte-hartze ikaragarriarekin igaro da Txorierritik 18. Korrika. Larrabetzutik Enekuriraino, makina bat jende hurbildu zaio herri guztietan. "Eman euskara elkarr!" leloa transmititu nahi izan dugu eta erantzunak argi utzi du herritarren gehiengo prest dagoela euskara babesteko eta laguntzeko.

"Badator Korrika" entzun eta jendea martxan hasten da. Lehenik, herritar batzuk hasten dira batzordeak antolatzen, lanak, ideia berriak eta ekitaldiak pentsa-

tzen eta prestatzen... Eta gero, herritar gehiago hurbiltzen da parte hartzera: Korrika aurkezpena (Zamudion), arropa desfilea (Larrabetzu), murala pintatzea (Derion), herriko bazkariak eta afariak... Baita euskara elkarreak ere: antzerkia, zinea eta dokumentala. Eta Bertso eskola. Herri batzordeen ardurari eta lanari esker ere jaitxoak antolatzen dira, erakusketak, umeentzako ekitaldiak... Ekitaldi kultural andana ipintzen dugu martxan borondatzeko lana eginda.

Udalek ere laguntzen dute baimen bereziak ematen, lokalak uzten eta bestelako lanak egiten. Adibidez, Loiuko Udalak Korrika txikia antolatu du bertako batzordearekin batera. Baina aurten bereziki aipatu behar duguna gazteen ekintza berria da. Txorierriko herri guztietatik pasatuz eta musikaz, kantaz, jokoez eta umore onaz baliatuz, "Pintxopote maratoia" antolatu dute, eta herri bakoitzean, alaitasun eta armonia ederrean, euskaraz

Eskerrik asko guztioi

bizitzeko bizipoza zabaldu dute, egun bateko jai polita eginez.

Korrika lasterketa bat baino gehiago dela konturatuko zineten dagoeneko. Lekukoa eskuz esku pasatu dugu; horren ohorea batzuek izan dute, baina ondoan egon direnek indarra, ilusioa eta berotasuna eman dute. Tipi-tapa, tipi-tapa, badator Korrika; eta konturatu orduko di-da joan da.

Txorierriko AEKtik denoi eman nahi dizkiegu eskerrak: Zornotzatik etorri den irlandarrari, nekatura egon arren Enekuri bidean oinez jarraitu duenari, Zamudion muletekin ibili denari, Metroak egin dituenari, klastetik irten eta itxaroten ordu bat baino gehiago eman duten Politeknikako eta Institutuko ikasleei, eskoletako irakasleei, haurrei, eta gurasoei, kilometro erdia erosi duten euskaltegiko ikasleei, enpresei, komertzioari, lagun elkarreei, bide bazterrean hurbildu diren herritarrei eta langileei, harrituta egon diren guiriei... den-denei, **ESKERRIK ASKO**.

Komunikazioaren preso

E-maila, Facebook, Twitter, Flickr, Twenti, Google+, Tumblr... uste dut erabiltzaile-izen eta pasahitz guztiak galduta dauzkadala, eta ia den-denak nahasita, ahaztuta edo batek daki non. Gauza da gaur egun makina bat sare sozial daudela Interneten. Baina, zertarako hainbeste erabiltzaile-kontu? Zergatik gabiltza komunikazioaren preso?

Sekulako errespetu-falta iruditzen zait lagunartean egonda, afari batean esaterako, jende guztia bere sakelako telefonari begira egotea, pertsonen arteko komunikazio fisikoari ekin beharrean. Penagarria da. Komunikazioak teknolo-

**JON GOIKOURIA***(Kazetaria)*

giaren preso bihurtu gaitu eta, gauzak horrela, ez dirudi aurrera egingo dugunik. Lau orduko eskolak ditut asteko bi egunetan, eta badago telefonoarekin batera kargagailua daramana eskolara. Hamar minutuko atsedendietan telefonoa kargatzen jartzen du beti. Kezkagarria benetan.

Duela gutxi sakelako telefonoa apurtu zitzaidan eta telefono konpainiako ardurarekin hitz egiten nengoela, zernolako telefonoa nahi nuen galdetu zidan. "Deitzeko eta mezuak bidaltzeko, besterik ez", erantzun nuen. Barreak entzun nituen telefonoaren bestaldean. Barregarria dena, jaun-andreok, gaur egun teknologiarekiko dependentzia izatea da, 'komunikaturik' bizi ahal izateko.

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Fle-apaindegia
M^a Antonia Llodio TXP

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantza kalea, 6 - 1. ezk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 685 70 33 12



Txorierritik Iparraldera

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Iparralderako bidaia antolatu du apirilaren 27tik 28rako. Arroeta Zamudioko mendi taldearekin eta Altzora Sondikako euskara elkartearekin batera egingo dute bidaia. Adierazi digutenez, apirilaren 27an lau aukera emango dira: Baiona Kantuz ekitaldian parte hartzea; Donejakue Bideak Donibane Garazitik Arnegira egiten duen ibilbide-zatia egitea; Donejakue Bideak Donibane Garazitik Luzaidera egiten duen ibilbide-zatia egitea; edo Lasatik Luzaide bitarteko mendi ibilbidea egin. Hurrengo egunean, Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorriin, eta nahi dutenek herri bazkarirako txartelak erosi ahal izango dituzte bertan, edota bazkaria euren kontura egitea.

Bidaiaaren prezioa 50 euro da elkarte-etako bazkideentzat eta Berbalagun egitasmoan parte hartzen dutenentzat; eta 30 euro, 18 urtetik beherakoentzat. Gainerakoek 55 euro ordaindu beharko dute. Prezioaren barruan sartzen dira joan-etorria, zapatuko afaria, ostatua eta domekako gosaria. Izena emateko azken eguna apirilaren 9a izango da eta 10 euroko bermea utzi beharko da.

Informazioa:

Lagatzu:

lagatzu@lagatzu.org / 94 452 34 47

Altzora:

ee@gmail.com / 635 75 35 95

Eskola arteko txapelketa

Apirilaren 13an pilota partidak jokatu dira Zamudioko frontoian, Bizkaiko Eskola arteko Txapelketaren haritik. Orotara hiru partida izango dira eta bertan hauek hartuko dute parte: Zamudio B – San Nicolas, Bakio A – Zamudio A, eta Sopelana A – Bermeo B.

Basterretxearen lana ezagutzeko bisitaldia

Nestor Basterretxearen lanak maiatza arte egongo dira ikusgai Bilboko Arte Ederren Museoa, eta Berbalagun egitasmoan dabilzanek hara joateko txangoa antolatu dute. Apirilean egingo da jarduerari, eta apirilaren 10era arte eman ahal izango da izena; horretarako, mezu bat bidali ahal izango da txori.berbalaguna@gmail.com helbide elektronikora, edo 635 75 35 95 telefono zenbakira deitu. Jarduera honetako parte-hartzaileek bisita gidatu bat egiteko aukera izango dute Bermeoko artista polifazetikoaren lana ezagutzeko.



KURREGOITI
JATETXEA
Laurroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteauregotti.com

elekma
URRATZUREN BAT DUTEN ETXETIKO BERRAK
TELEBISIEN ETA ETXETIKO ELEKTRIKO OLAGAK

leherengo markak • Phezianik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasariari etorbidea, 25-3 N • 48180 Lolu
T: 944 530 232
www.elekma.es

INBISA

SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzoruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34

Mendi martxa, Larrondon

Aurten, Larrondoko I. Mendi Ibilaldia antolatuta da Loiu. Apirilaren 14an egingo da eta adin guztietako lagunek hartu ahal izango dute parte, ibilbidea zailtasun txikikoa izango baita. Ibilaldia goizeko 9:30ean hasiko da Elotxelerriko Kultura-etxean, eta guztira zortzi kilometro egingo dituzte. Ibiltariak leku hauetatik pasatuko dira: Ola, Txankela, Ipintza eta Lezamako Bide Zaharraren zati bat. Ibilaldia Elotxelerriko Kultura-etxean amaituko da.

Irteerak, Arabara eta Kantabriara

Gailur Lezamako mendi taldeak irteera bi egingo ditu apirilean. Apirilaren 21ean Arabara joango dira eta, besteak beste, Izki parke naturala, Igoingo haizartea eta Musitu herria bisitatuko dituzte. Lezamako eskolatik 9:30ean irtengo dira. Beste alde batetik, apirilaren 27an Asongo parke naturalera joango dira, Kantabriara. Hitzordua 8:30ean ipini dute herriko plazan. Informazio gehiagorako: gailurmt@euskaltel.net.



Larrabetzuk badu osasun-zentro berria

Martxoan bertan jarri da martxan eta Askatasunaren enparantzan dago, udal-txearen aurrean. Zentro berrian hauek atondu dituzte: itxarongela, komunak, sendaketa-gela, erizainaren gela eta medikuaren gela. Asun Etxebarria Larrabetzuko alkateak azaldu zuen bezala, kontsultategia handiagoa eta erosoagoa da, eta zerbitzu gehiago emango dizkie herritarrei. Esaterako, hemendik aurrera odol-ateratzeak astean behin egingo dira bertan, eta larrabetzuarrek ez dute Galdakaora joan behar, orain arte egin duten moduan. Gainera, zentro berrian aukera egongo da beste tramite batzuk

egiteko ere. "Osasun-zentroari esker hobe izango da herritarren ongizatea".

Enrique Maiz Osakidetzako Barrualdeko Eskualdeko zuzendari-kudeatzailea, Larrabetzuko alkatea eta herritar batzuk batu ziren ekitaldian. Libe Loroño larrabetzuarrek ere hartu zuen parte, zinta moztu zuena bera izan baitzen. Libe 96 urteko andrea da, Gure Etxe jubilatuen elkartearen kiderik adintsuena hain zuzen ere. Emakumea dotore-dotore azaldu zen inauguraziora eta zinta moztu ostean, gazteleraz zein euskaraz hitz egin zien bertaratutakoei. Txaloen ostean kopaua eskaini zen.




hotela
jaketxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com


Inaki 94 455 65 08 Jabi 94 452 14 31
Magalarte Txakolina
ARETXABALETA HERRI ETXETARTEA
Bezaiko Txakolina 10,75% vol. 75 cl.
Denominación de Origen
Lar-1-05

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA
TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskaltel.net

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Talleri etabaketa: 54
415 Buztina
48102 Duru
Telefona eta faxa:
94 454 44 58
a.amondarain@euskaltel.net

Gazte Eguna, Zamudion



Mugetatik kirol kluba

“Lezamako mugetatik” mendi ibilaldia eta lasterketa zortzigarren aldiz egingo da aurten. Antolatzaileek Lezamako Mugetatik kluba sortzea erabaki dute, egitasmoari babes legala eta egitura sendoa emateko. Izan ere, azaldu duten bezala, “eratzte legala guztiz beharrezkoa izan da, ekintzak hartu duen tamaina kontuan hartuta, kirol arloan zein arlo ekonomikoan eta juridikoan”. Klub berria martxa eta lasterketa antolatzeko sortu da, eta bazkideak pertsona fisikoak nahiz elkarteak izan daitezke. Ahal den neurrian, klubak orain arte eduki dituen antolakuntza eta lan jarduera berbera mantenduko du.

Inisitue Zamudioko Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatu du hirugarren aldiz apirilaren 13rako. Ekitaldiz beteriko eguna izango da. Txupinazoa 10:00etan botako dute eta 10:30ean umeentzako jarduerak izango dira: jolasak, tailerrak, txotxongiloak eta mago baten saioa. Kirolari ere egingo zaio lekua, eta 12:00etan Areto-futboleko Txapelketaren finala jokatuko da. 13:00etatik aurrera, txikiteoa egingo da herriko tabernetan zehar, eta 14:30ean bazkaria emango da. Bazkarirako txartelak Ama3, Susterrak eta Fernan tabernetan jarriko dira salgai. Umeek eta langabetuek zortzi euro ordaindu behar dute; eta nagusiek, 10 euro. Bazkalos-

tean, aurreko urteetan eginiko jardueren argazkiak eta bideoak jarriko dira ikusgai.

Bapo jan ondoren, gorputza apur bat mugitzea komeni ei da. Zamudion, herri kirolak izango dituzte 17:00etan, eta txaranga batek herriko kaleak girotuko ditu 19:00etatik aurrera. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira eta talde hauek igoko dira eszenatokira: Eskean kristo, MCD eta Gora Herria. Goizaldeko 5etan, Dj Rulik hartuko du haien txanda.

Antolatzaileek esan digutenaren arabera, eguraldi ona eginez gero, ekitaldi guztiak plazan egingo dira; euria bada, berriz, eskola zaharreko patiora edo frontoira eramango dituzte.

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 Ionja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatalasai@gmail.com

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL.FNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia

Pailazoen *Sentitu, pentsatu, ekin* ikuskizuna eramango dute maiatzaren 3an Zamudiora. Ekintza Lagatzu euskara elkarteak antolatu du, eta arratsaldeko 7etan izango da herriko kiroldegian. Elkartearen bazkideek lehenasuna edukiko dute sarrerak erosteko orduan. Hala, apirilaren 10etik 12ra bitartean, 18:00etatik 19:00etara, eskuratu ahalko dituzte Lagatzu elkartearen lokalean. Lagun bakoitzak sarrera bi erosi ahalko ditu. Sarrera bakoitzak sei euro balioko du.

Sobera gelditzen diren sarrerak apirilaren 15etik 19ra bitartean ipiniko dira salgai udaletxean, zortzi euroan. Zamudion erroldatutako 12 urtera arteko ume bakoitzak, gehiezin, sarrera bi hartu ahalko ditu.

Garmintxaren aldeko martxa

Garmitxa elkarteak "Garmintxaren martxa - Larrabetzutik oinez" ekintza antolatu du apirilaren 28rako. Izena ematea egun horretan bertan egin beharko da plazan, goizeko 10etatik 11tara. Hamabi urtera arteko umeek euro bi ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek hiru euro. Parte-hartzaileek elkartearen gaineko informazioa eta txarteltxo bana jasoko dute izena ematerakoan. Txarteltxoaren truke pintxo bat lortu daiteke ibi-

laldia bukatzen denean. Elkarteak ez du ibilaldia zehaztuta eduki martxoko alea itxi orduko. Hala ere, aipatu diguten bezala, ordu bi inguruko iraupena izango du eta plazan amaituko da. Bertan txosna bat eta informazio gune bat ipiniko dituzte. Elkartearen produktuak ere jarriko dituzte salgai. Bestalde, eskolako gurasoen elkarteak ere ibilaldi bat antolatu du egun horretarako. Ekintza biek bat egingo dute.



Consulting Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746
Mitxel, 6. beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

HARTEGIA • URDATEGIA
VICTOR
ARTISANAL ELABORAZIOA
Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...
Plater aurrekoizinatua
Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Aislamientos Derio Tabikeak
Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Aierza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientoerderio.com

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6



Doyaneko taekwondolariak, bigarrenak Euskadiko Txapelketan

Otsailean, Sub 21 Euskadiko Txapelketa izan zen eta Doyan Derioko klubeko taekwondolariek txapelketa horretan inoiz izandako emaitzarik onena lortu zuten bertan. Bigarren postuan sailkatu ziren eta guztira urrezko hiru domina, zilarrrezko domina bi eta brontzezko hiru domina eskuratu zituzten. Beste alde

batetik, klubeko beste kirolari batek, Iñigo Galanek, brontzezko domina eskuratu zuen Sub 21 Espainiako Txapelketan. Euskadiko Taekwondo Federazioak Galani deitu zion Espainiako Txapelketan, senior kategorian parte hartzeko. Gazteak oso borrokaldi ona egin arren, ez zuen garaipeirik lortu.

Nobedadeak, nahi dudalako.com webgunean

"Nahi dudalako" kanpaina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-ko 3. eta 4. mailan dabilen gazteei dago zuzenduta, eta horiek euskaraz ikasten jarraitzea du helburu. Hala, nahidudalako.com webgunean informazio zehatza dute Batxilergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz egiteko duten eskaintzari buruz. Gainera, egitasmoak nobedade bat ekarri du aurten, izan ere bertan unibertsitateko eskaintza zein den ikusteko aukera ere badute gazteek. Bestalde, aipatu beharra dago Itxaso Payak hitzaldiak eskaini dituela Txorierrri Institutuan gazteei euskararekin izan duen esperientzia jakinarazteko.





BIZKAIA IRRATIA Txorierrin
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

urdaltegia delicatessen
amalur

Urbe, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurderio.com
info@amalurderio.com

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurkitutako doan
- Especialitatea: umeak

astikenemotor
[www.ASTIKENEMOTOR.com](http://www.astikenemotor.com)

DERIO - 946 451 781

Lezama Bizirik Eguna

t: *Jabi Agirre*

Aurreko urteetan bezala, Lezama Bizirik auzo elkarteak bere eguna ospatuko du apirilaren 14an. Elkarrekin zenbait ekitaldi antolatuko ditu egun horretarako. Hala, goizean Lezamako Kurtze auzotik Larra-betzuko Goikoelexalde auzora doan bide zaharraren zatia egingo dute oinez. Hitzordua goizeko 10etan ipini dute Kurtze auzoan, eta, bestek beste, leku hauek pasatuko dira: Athleticeko instalazioak, Garaioltza, Bazabale eta Gaztelu. Itzulera autoz egiteko aukera egingo da.

Lezama pasabide garrantzitsua izan da mendeetan zehar, bide hauek pasatzen baitziren bertatik: Bilbo-Gernika bidea, Zin Bidea, Kostaldeko Donejakue Bidea eta Urduña-Bermeo bidea. Ibilbidean parte hartuko dutenen artean informazio-orriak banatuko dira eta aipatutako bideei buruzko informazioa azalduko da bertan. Beste alde batetik, arratsaldeko 3etan bazkaria egingo dute Lezamako eskola zaharrean, eta arratsaldeko 5:30ean hasiera emango diote urteko batzar nagusiarri.




130 ume, Mihiluze txapelketan

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Mihiluze Txapelketa antolatu du bigarren aldiz eta bertan 65 bikotek eman dute izena; 130 ume orotara. Mihiluze 10 urtetik 12 urtera bitarteko umeei zuzendutako txapelketa da eta telebistako saioan dago oinarrituta. Parte-hartzaileek hainbat probari egin beharko diete aurre, haien euskara maila erakusteko. Sondikan 12 bikotek eman dute izena txapelketan; beste 12 bikotek, Lezaman; 17 bikotek, Derion; 12 bikotek, Zamudion; eta beste 12 bikotek, Larrabatzun. Txapelketaren antolatzaileen esanetan, deialdia oso arrakastatsua izan da eta aurten iaz baino zortzi bikote gehiago animatu dira han parte hartzera. Kanporaketek hasiera eman zaie eta horiek apirila-

ren 22ra arte iraungo dute. Azaldu diguten bezala, finalaurreko bi egingo dira apirilaren azken astean eta han sei bikote arituko dira: alde batetik, herri bakoitzean kanporaketa gainditzen duen bikotea; eta bestetik, bigarren postuan gelditu eta Txorierri mailan puntuaziorik altuena lortzen duen bikotea. Finalera hiru bikote joango dira eta hura maiatzaren 3an, arratsaldean, izango da Derioko Kultur Birkan. Txapelketa irabazten dutenek Madrilera Warner Parkera bidaiatu bana jasoko dute sarritzat; bigarrenek, Senda Viva Nafarroako Natura-parkera bidaiatu bana; eta hirugarrenek, Donostiako Aquariumera eta Kutxa Espaziora bidaiatu bana. Era berean, txapelketaren kamiseta bat emango zaie parte-hartzaile guztiei.




**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
 ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
 JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
 Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
 prentsa, aldizkariak, liburuak,
 papergintza eta eskulanak.
 Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
 48150 SONDIKA (Bizkaia)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
 Santi Mami auzoa, 1
 Tel.: 94 454 10 06
 Faxa: 94 454 12 15
 48170 Zamudio (Bizkaia)


SANTI MAMI
 ALBAILARITZA
 Nerea Pedrosa Cole, 517
 COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
 Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
 Faxa: 94 454 12 15


HARATEGIA
ALBERTO
 Arbolantxa, 4
 T: 94 452 08 25
 48170 ZAMUDIO


**ama
taberna**
 Leizola plaza, 2 - Leizaola (Zamudio)
 94 454 13 68



Elurra Larrabemendin

Hilabeteak daramatzat Lezamako eskolaren urteurrena dela-eta ekoizten gabiltzan dokumentalerako irudiak grabatzen, hezkuntzaz gain herria ere behar bezala islatzeko asmoarekin. Leku kuttuna dut Larrabemendi ingurua, ikuspegia ederra delako eta Lezaman lehenengo sektoreak izan zuen garrantzia oraindik han antzeman daitekeelako. Elurra bisitari izan genuen otsaileko domeka horretan argazki-kamara hartu eta hara joan nintzen beste behin, argazkian ikusten den bezala, abereen jakin-mina piztuz. Izan ere, Lezamako hezkuntzaren historia bada mamitsua eta badu zer helarazi ondorengoei.

Argazkia eta testua: Gaizka Peñafiel



Bai Euskarari
urrats biziak



ziurtagiriaren **ekartea** bai
baserakari.org

“Xanpaina beti da aproposa”

OLALLA ELORRIAGA | aditua ardoan

Olalla Elorriagak familiaren dendan egiten du lan, Areetan. Bertan hainbat jaki eta ardo saltzen dituzte. Olallak gazte-gaztetik hartu zuen ardo sailaren ardura eta denboraren poderioz aditu bihurtu da. Horregatik, Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak ardoen dastaketa egiteko gonbitea egin zion, eta neskak pozaren pozez onartu zuen.

a: Gaizka Eguzkitza

Zelan Zamudion egin zenuten dastaketan?

Oso ondo. Zenbait enologo eta upel-tegietako zuzendariren bizitzaz mintzatu ginen eta, gero, ardo bakoitzaren gorabeherak azaldu nituen. Bi orduko dastaketa izan behar zen, eta bi ordu eta erdi eman genuen ardoari buruz hitz egiten. Euskaraz egin behar izatea handicap txikia zen niretzat, nik normalean erdaraz egiten dudalako. Baina ikasleek lagundu egin ninduten eta gustura egon nintzen. Gainera, hitz egiteko problemarik ez daukat... (kar, kar).

Zelan hasi zinen ardoaren munduan?

Nik familiaren dendan egiten dut lan, eta bertan ardoen arduraduna naiz. Berez, Urdulizkoa naiz eta han bizi nintzen gaztetan, aititeren baserrian. Handik dator dendaren izena, La granja selección. Nik 25 urte nituela, zerbait ikasi nahi nuen eta gure bezeroa zen Ana Martin enologoari galdetu nion. Ana Itsasmendi txakolinaren bultzatzaileetakoa da. Berak Madriler, Dastatzaileen Eskola Nazionalera, joateko gomendatu zidan. Astebete pasatu nuen bertan eta izugarri gustatu zitzaidan. Apur bat beranduago Artxandako Ostalaritza Eskolan antolatu ziren dastatze-ikastaroak eta haietan ere hartu nuen

parte. Han talde jatorra bildu zen, eta batzuk oso famatuak dira gaur egun: Jon Andoni Rementeria sumillera, Juan Antonio, Boroa jatetxearen maitrea... Gaur egun oraindik gaude harremanetan.

Eta gaur egun sumillera zara...

Ez. Nik ez dut neure burua sumillertzat. Ingelesez *wine speaker* esaten da, hau da, ardoari buruzko hizlaria, eta horixe naiz ni: ardoaz mintzatzen naiz eta ar-

do aukatzen laguntzen diot jendeari. Jatetxeetan errazagoa da ardo aukatzea: zerbitzariak laguntz egiten dizu, badakizu zer jango duzun, norekin, nolako giroa dagoen, nolako mahaikideak dituzun, lagunak, bikotea, familia... Baina denda batean dena da hotzagoa. Nik berotasuna ekartzen diet bezeroei eta botila bakoitzean zer dagoen azaltzen diet.

Ardoa betidanik izan da gizonezkoen eremua, ezta?

Bai. Gogoratzen naiz hasiera batean dendara etortzen ziren bezeroek aitari eskatzen ziotela ardoari buruzko aholkua. Horrek pilo bat izorratzen ninduen ardoen arduraduna neu nintzelako (kar, kar). Egoera badoa apurka-apurka aldatzen eta gero eta emakumezko gehiago dago, baina oraindik gizonezkoen mundua da. Nire ustez, emakumezko zorroztzagok gara, argi eta garbi dakigu zer gustatzen zaigun eta zer ez. Hala ere, nire ustez, gizonezkoak erosoago dabilta ardo saltzen diena emakumezkoa denean. Izan ere, guk hobeto dakigu emozioak adierazten.

Gaur egun, ardo munduko edozein tokitan egiten da. Onuragarria da ardo globalizatzea?

Ardo oso lotuta dago tokian tokiko kulturarekin; hau da, leku bakoitzak badu ardo ulertzeko eta ekoizteko era. Eta batzuek ardoaren nortasuna aldatu nahi



Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 05 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKILETAN ESPIZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA AFARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mangantze etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
igile
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



Urrezko sudurra

Olallak ez du bere burua sumiller-tzat hartzen, baina iaz bigarren postuan lortu zuen Urrezko sudurra lehiaketan. Holakoetan sumiller ospetsuek hartzen dute parte eta lehiakideek asmatu behar dute zer edari dagoen kopa beltz batean. Eta hori guztia papertxo batean adierazi behar dute bost minutuan. "Lehenik eta behin Estatuko iparraldekoen kontra (Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Asturias eta Kantabria) sailkatu nintzen eta bai finalerdia, bai finala Madrilan jokatu nituen. Lehiaketara esperientzia bizi izateagatik eta ondo pasatzeagatik aurkeztu nintzen. Ez nuen espero inondik inora finalerako sailkapena lortzea, ezta bigarren postua eskuratzea ere".

Olallaren esanetan, lehiaketa oso esperientzia polita izan zen, harro sentitzeko modukoa. "Nik herriko denda batean egiten dut lan, eta jate-txe ospetsuetako sumiller handiei irabazi egin nien". Aurten berriro aurkeztu da, baina ez du sailkatzea lortu. Datorren urtean berriro saiatuko da, lehiaketan kristoren giroa sortzen baita. "Beste parte-hartzaileak oso jatorrak dira: elkarri lagundu eta animoak ematen dizkiogu. Oso lagun interesgarriak ezagutu ditut lehiaketari esker eta oraindik harremanetan gaude. Ardoren bati buruzko zalantzak ditugunean, elkarri galdetzen diogu. Ardoaren inguruko sarea osatu dugu (kar, kar)".

izan dute, ahalik eta gehien zabaltzeko edo besteenak aintzat hartzeko. Eta ardoa goxoa izan behar da. Ondo dago zure produktua besteei gustatzea nahi izatea, baina ni ez nago ados, horretarako zure nortasuna gehiegi aldatzen baduzu. Horrela, magia kentzen diozu produktuari.

Zein da gehien gustatzen zaizun ardoa?

Momentuaren eta konpainiaren arbera, musikarekin moduan. Ardoa aukeratzeko, jaten duzunak du garrantzia, baina hori baino askoz inportanteagoa da noiz eta norekin egongo zaren jakitea. Botilarik goxoena besteren batekin edo batzuekin edaten duzuna da. Ezin izango nuke ardo bakar bat aukeratu, baina xanpaina aproposa da edozein momentutarako. Jendek postrean-eta hartzen du xanpaina, baina nik uste dut beti dela egokia.

Txorierrin hainbat txakolin ekoizle ditugu. Azken bolada honetan gero eta ospe handiagoa hartu du edariak. Zer deritzozu txakolinari?

Bizkaiko txakolina oso ardo ona da. Lehen txarra zela esaten zen, eta ziur asko horrela zen: etxeko ardoa zen, kontrolik gabe ekoiztua... Gaur egun, ordea, produktua zaindu egiten da, eta kalitate handia du. Izan ere, azken bolada honetan erakunde publikoek eta baserritarrek izugarrizko apustua egin dute. Gainera, hemendik kanpo ere gero eta ezagunagoa da, esportazioak gero eta handiagoak baitira. Hasiera batean gehienbat zuriak merkaturatzen ziren eta gaur egun baita beltzak ere. Biak dira gomendagarriak.

*"Ardo botilarik goxoena
besteren batekin
edo batzuekin
edaten duzuna da"*

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitez Trippyra, Derlora

Bihoko Kalea Bajoa
DERIO

**MODA
INFANTIL**
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoz: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zaintza BERRAK
Logopedia
Podologia
Krimasajee

**clinica dental
ZAINDUZ
hartz klinika**

Txaneri etorbidea, 9 - Lorja | Arteaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

“Egunean ordu erdi librerik ez dauenak arazo handia dauka”

GORKA BILBAO | entrenatzaile pertsonala

Kirola egiteak geure buruagaz hobeto sentiduten laguntzen deusku, beharrari etekin handiagoa ateraten, hobeto lo egiten, arreteta zerbaitetan jarten... Onura asko ekarten deuskuzan arren, gutariko batzuentzat gatxa da kirolak eskatzen dituan ohiturei jarraitzea. Entrenatzaile pertsonala edo kirol aholkularia gure aliaturik onena da kasu horreetan. Gorka Bilbao larrabetzuarrak 11 urte daroaz arlo honetan behar egiten.

t: Itxaso Marina / a: G.B.

Zertan datza entrenatzaile pertsonalaren beharra?

Batez be personak motibau egiten doguz, kirola egin daien. Bezeroen adina, ezaugarri fisikoak, lana eta beste parametro batzuk kontuan hartuta, hareen beharrietara egokituta dagoan entrenamendu berezia diseinaten dogu, baita dieta berezia be.

Zeintzuk dira zerbitzu horren abantailak?

Tratua askoz pertsonalagoa da eta entrenatzailea zugaz denbora guztian dagoanean, badaki zer egiten dozun ondo eta zer txarto, eta akatsak zuzentzeko aukera emoten deusku. Gainera, bezeroaren atzean gabilzanek, presino handiagoa-edo sentiduten dau eta ahalegin handiagoa egiten dau.

Zein da zuk entrenatzen dozuzan lagunen profila?

Hogei urtetik hirurogei urtera bitarteko lagunak dira. Horreetako batzuk arazo psikologikoak ditue, autoestimua bajua... eta beste batzuk oposaketak prestetan dabilz, suhiltzaileak izateko, poliziak... Pisua igon edo bajatu gura dabenak be badagoz, jarrera akatsak zuzendu gura dabezanak, eta erditu ostein, gorpuzkerea berreskuratzen gura dabenak.

Famaduen moda dala pentsau liteke.

Egia da famaduen artean modan dagoala, baina guztion eskura dagoan gauzea da. Adibidez, famaduen bat entrenau dodan arren, nire bezero gehienak herritar arruntak dira.



Eta garestia.

Garestiak izatearen ospea dogu, bai, baina beste gauza batzuetan zenbat gastetan dogun be pentsau behar dogu, eta lehentasuna zeri emon gura deusagun.

Uste dot badozula arau edo esaldi bat...

Hau da: egunero 30 minutuan ariketa fisikoa egiten badau, edozein personak lortzen dau errendimendu handiagoa. Izan be, egunean ordu erdi librerik ez dauenak arazo handia dauka, nire eretxiz, estres handiagaz bizi dalako. Ordu erdi hori ondo aprobetxau behar da: ibilten, korrika egiten, bizikletaz ibilten... Abantaila kardiobaskular handiak dakarkuz eta hobeto sentiduten garanez, hobeto helitzen deusagu egunari.

Edozein kirola da baliagarria?

Gehien gustetan jatzun kirola egin behar dozula uste dot. Kirol mota bat edo bestea gustura egiten badozu, praktiketari ixteko atxakiarik ez dozulako hain erraz topauko.

Dietaa aitatu dozu hasieran.

Elikadura oso kontu garrantzitsua da eta lagun askok ez dakie zer jan behar daben, zein ordutan, eta zenbat be ez. Gutariko bakotzak ezaugarri fisiko batzuk doguz, lan bat, beharrian batzuk, kirola ordu baten edo bestean egiten dau... beraz, dieta horreek guztiak kontuan hartuta diseinatu beharko da. Niretzat baliagarria dana zuzentzen baliagarria ez dalako.

Kirolagaz gauza bera gertatzen da.

Gizarte-sareetan edo foroetan, askok ipinten dabe zelako entrenamendua eta

“Personak motibaten doguz, kirola egin daien, eta entrenamentu eta dieta espezifikoak diseinaten deutseguz”

“Era askotako bezeroak doguz: autoestimua baxua dabenak, oposaketak prestaten dabilzanak...”

“Inportantea da sen ona eukitea, jakitea kirola osatzeko dala, ez gaixotzeko”

dieta egiten dituen, eta beste batzuk kopiatu egiten deutsee. Joera kaltegarria da, lehen esan dodan bezala, bakotzak gure beharrianak eta ezaugarriak doguzalako.

Zelako entrenamentua egiten dau entrenatzaile pertsonal batek?

Astean lau egunean pisuak altzeta dudan, eta astean bitan korrika egiten dot. Nik beti egin dot kirola, pelotari profesionala be izan naz, eta badodaz ohitura batzuk. Dana dala, uste dot ez dogula kirolagaz itsutu behar. Inportantea da sen ona eukitea, jakitea kirola osatzeko dala, ez gaixotzeko.

Obsesino handirik dago, ala?

Beste leku batzuetan bai, beharbada, baina ez bertan. Halanda be, egia da gure gorputza zaintzeko ohitura doguna.

Krisiaren eragina leunagoa da sektore honetan, beraz?

Eskaerak apur bat behera egin dauen arren, jentek jarraitzen dau bere gorputza eta bere burua zaintzen. Lanik gehien udari begira daukat, apiriletik aurrera.

Zein proiektutan zabilz murgilduta?

Egitasmo bat egiten gabilz tokiko telebista-kate baterako. Egitasmoan arlo ezberdinak lau profesionalen hartzen dogu parte eta persona bati laguntzen deusagu bere itxurea aldatzen. Bestalde, beste proiektu baten nabil beste lagun batzuk eta horretan osasunari lotutako zerbitzu integrala eskaintzen dogu: *coach* zerbitzua, masajistea, entrenatzaile pertsonalak...

Modelo dabilen pelotari ohia



Gorkaren bizitzea oso gaztetxoan zinetik hona egon da kirolari lotuta. Halan, Lezamako Pelota Eskolan sei urte zituala hasi zan eta kirol hori 27 urte bete zituan arte praktikau eban. Profesional mailara ailegau zan, baina bere enpresek itxi beharra izan eban krisia dala-eta. Gorkak pelota mun-

duan eban ibilpidea be etenda lotu zan. “Profesionala nintzanez, urtebete pasau behar zan afizionau mailan barrero jokatu ahal izateko. Garai hatan kirol aholkulari be banenbilenez, gimnasioan buru-belarri sartzea erabagi neban”. Gaur egun pelotan aritzen ez bada be, kirol horri arreta handi jarraitzen deusala esan deusku, eta frontoira ahal dauen guztietan joaten dala. “Pelota oso kirol zintzoa da eta balio handiak irakatsi deustaz”.

Modeloa izateko aukerea be ekarri eutsan pelotak. “Enpresaren webgunerako argazkiak egiten genbiltzala fotogenikoa nintzala esan eustan argazkilariak. Eta Mister Bizkaia lehiaketara aurkeztera animau ninduan. Bigarrena lotu nintzan”. Hori 2008. urtean izan zan; hurrengo urtean Mister Kantabria lehiaketea irabazi eban. “Baina esan neutsen ez nintzala Espainiako txapelketara joango, ez nentorrela balio horreekaz bat”. Besteak beste, Gorkak moda desfileetan hartu dau parte eta galtzontzilo modeloa izan da. “Egia esan, oso galduta nago moda munduan. Niri benetan gustetan jatana kirola da eta handi bizi gura dot”.

Leire Begona
ILEAPAINDEGIA

Uniaxe ileapaindegia
Estetika
Ordufaji jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, erokortasun
Auzokoen konuntuenak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegok eta lokalak
Olinu amaterako garbiketa
Itasituenak
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

harategia - urdalategia
MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94


2012ko memoria: Gizarte-zerbitzuak

Emakumeak eta familia

Informazio gehiago: www-e-txorierrri.eu

Eskubide eta errekurtsioen gaineko informazioa, aholkularitza eta orientazioa

Emakumea sexuen arteko berdintasun politikaren barruan sartzea du helburu, baita familiari arreta eta laguntza ematea ere.



Minusbaliotasunak

Minusbaliotasunaren onarpena

2012. urtean, Derion 18 eskaera bideratu dira, minusbaliotasuna onartu eta aztertzeko; 8, Larrabetzun; 3, Lezaman; 5, Loiuin; 13, Sondikan; eta 24, Zamudion.

Aparkatzeko txartelak

Aparkatzeko 8 txartel eman dira Derion; 5, Larrabetzun; 2, Lezaman; 3, Loiuin; 6, Sondikan; eta 3, Zamudion.


Nagusiak

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua

Eguneroko zereginak egiteko arazoak dituzten pertsonentzako laguntzak.



Mendekotasuna dutenentzako diru-laguntzak, familia-ingurunean zain ditzaten



Mendekotasuna baloratzea



Telelaguntza zerbitzua






Gizarteratzea, diru-laguntzak eta prestazio ekonomikoak


Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE)

Nahikoa erre-kurtso ekonomikorik ez dutenen oinarriko beharri-zanak betetzen ditu.




Etxebizitzarako prestazio osagarria

DBEren osagarria, etxebizitza edo ohiko bizitokiari lotutako beharri-zanetarako.



Gizarte-larrialdietarako laguntza ekonomikoak

Nahikoa erre-kurtsorik ez duten pertsonen gastu espezifikoak betetzen dituzte, gizarte-bazterketa ekiditeko edo arintzeko.



Jakien bankura agintzea


Derion 10 kasu bideratu dira Jakien bankura; 4, Larrabetzun; 5, Lezaman; 3, Loiu; 12, Sondikan; eta 8, Zamudion.

Caritasera agintzea

Derion 40 kasu bideratu dira Caritasera; 10, Larrabetzun; 11, Lezaman; 9, Loiu; 31, Sondikan; eta 33, Zamudion.

Gizarte-inklusiorako laguntzak

Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen oinarriko beharri-zanak betetzea eta haien gizarteratzea erraztea dituzte helburu.



Etorkinak

BILTZEN etorkinei aholkularitza juridikoa eta soziala emateko programara agintzea



Umeak eta familia

Gizarte-hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua

Euren ardurapean adingabeak dituzten familiei eta helduei dago zuzenduta, eta egoera hauek aurreikusi eta leuntzea du helburu: arriskua, babesgabetasuna eta gizarte eta familiari lotutako zailtasunak.



Ebaluazio, diagnostiko eta esku hartze psikologikoen zerbitzua

Haurtzaroan sortzen diren arazo psikologikoak eta portaerari lotutakoak goiz antze-man eta tratzea ditu helburu.





t: Itxaso Marina

Kalidatea eskaintzen deuskue, prezio onak eta tratu hurbil eta pertsonalizaua. Pisuzko arrazoiak ditugu gure herrietako dendetan eta bestelako establezimenduetan kontsumiduteko. Baina zein da txorieritarron joerea? "Kontzientzia handia dabe biztanle batzuk. Herrian bizi eta erosi behar dabela uste dabe eta herriko merkatarien aldeko jarrera adierazoten dabe", esan dau Ines Meñika Larrabetzuko dendariak. Joera hori gure eskualdeko beste herri batzuetan be bada nabari, adibidez Derion, baina txanponaren beste aldea da herritar askok Txorieritik kanpo

kontsumiduteko ohiturea dabela. Merkataritari batzuen eretxiz, jarrera hori eskaintza urriaren ondorioa da. "Sondikan, esate baterako, denda gitxi doguz eta dagozan komertzioak batez be janari-dendak eta tabernak dira. Nik beste sektore batzuetako dendak botaten ditut faltan: arropadendak, oinetakoenak...", aitatu dau Iza-kun Luengas merkataria. "Herritarrak zelan erakarri aztertu behar dogu", generatu dau Idoia Zubieta Zamudioko merkatarien eta zerbitzuen alkartearen presidentea, "eta bidea zabaldu, gurean denda espezializauak zabaldu daitezcan. Horretara, eskaintzea zabalagoa izango litzateke eta herritarrek ez leukie beste

leku batzuetara joan beharko erosketak egiten".

Eskaintzea alde batera itxita, egia da erosteko ohiturak be aldatu egin dirala. Kasu gehienetan, gure behar-ordutegira egokitzen dogu erosketak egiteko denporea, eta atsedan-orduetan egiten ditugu, edo beharretik urteten dogunean. Ohitura barri horrek gure herrietatik kanpo kontsumidutera eroaten gaitu. "Guretzat gatxa izan arren, merkataria malguagoak izan beharko ginateteke ordutegiei jagokenez. Bateren batek beharra herritik kanpora egiten badau eta lanaldi zatitua badauka, gure dendara nekez etorriko da, bion ordutegiak bat ez badatoz",



esan dau Inesek. Emakumearen aburuz, supermerkadu handiek eta merkataritza-guneek kalte handia ekarri deusie merkataritza txikiari, "eta gainera, gitxi balitz, beste supermerkadu kate handi bat etorriko jaku orain... jai dogu".

Hiru arma

Merkataritza-gune handiak abantailak ekarten deusiez kontsumitzaileari: ordutegi-malgutasuna eta gune berean dagoan eskaintza zabala, esaterako. Halanda be, Jokin Batiz Lezama Saretzen alkaterearen presidentearen esanetan, gure dendek eta negozioek baditue hiru arma, merkataritza-guneetatik bereizten ditue-



Eskaintza dibertsifikatea beharrezkoa da, txorierritarrek erosketak egiten kanpora joan behar ez izateko

Erosteko ohiturak behar-ordutegira egokitu ditugu; hori kontuan hartzekoa da dendearen ordutegia zehazteko orduan

Kalidadeak, hurbiltasunak eta tratu atseginak bereizten ditue gure dendak merkataritza-guneetatik

nak eta lehiakorrek egiten dituenak: kalidadea, hurbiltasuna eta tratu atsegina. "Arazoa da ez dakigula gure berezitasun hori saltzen. Lezamako dendetan, adibidez, herrian bertan ekoiztutako barazkiak, frutak... saltzen dira. Baina, herritarrek badakie hori?"

Internetek be ekarri dau erosketak egiteko moduak aldatzea. Erreminta eroso da eta gero eta jente gehiagok erabiltzen dau asteko erosketea egiteko, arropea erosteko edo hoteletan-eta erreserba egiteko. "Geu be baliau beharko ginatete teknologia barriez", bota dau Jokinek, "Herriko negozioak batzen dituan webgune bat bultzatu, eta bakotzak eskaintzen dauena bertan zehaztu. Bezeroakaz harremanetan egoteko bide barriak be jarri leitez martxan. Esate baterako, erosketea Interneten bidez egiteko aukerea emon, eta erositakoa etxera eroan".

Txorierrin 2.000 enpresa inguru dagoz eta hango langileak bezero potentzialak dira gure dendarientzat. "Industriagunetan eta bertoko enpresetan behar egiten dabenek gure dendetan erosteko joerea dabe, hareentzat eroso dalako. Atsedenduak aprobetxatzen ditue eta etxera ailegaten diranean, nasai egon leitez. Nik uste dot sektore holako kasuetan be ahalegina egin beharko gendukeala, eta eurrei zuzendutako kanpainak bultzatu", aiatu dau Idoiak.

Ondorioak handiagoak edo txikiagoak izan leitekez, baina krisiak guztiongan eta sektore guztietan dau eragina, era baten edo bestean. Merkataritza txikia ez da isla bat. "Lehen be gauzea apur bat geldirik egon dan arren, urritik hona beherakada handia egon da salmentetan", azaldu dau Izaskunek. Edozelan be, eta batzuk dinoen moduan, merkataritza txikia krisian "beti edo ia beti" dagoan sektorea da. "Krisia igarri, igarri egiten da, jakina. Eta gainera, komertzio batzuk beste batzuk baino gehiago igarten dabe; horretan ez dago zalantzarik. Baina enpresa handiak alderatuta, oparoaldia egon danean guk ez dogu hainbesteko irabazirik euki, eta orain be krisiak ez dau hain eragin handia gudan", azpimarratu dau Idoiak. Egoera ekonomikoak kezkatu egiten ditu merkatariek eta gehienek baltz ikusten dabe etorkizuna; zamudioztarrak itxaropen izpia ekarri gura dau iluntasuna nagusi dan gaur eguneko testuingurura: "Autonomoak gara eta ez dogu langile askorik gure kargu. Beraz, negozioa mantentzea lortzen badogu, nahiz eta zailtasunak egon, aurrera egingo dogula uste dot".

Alkartek

Txorierrin osatu zan lehenengo merkatarien eta zerbitzu arloko profesionalen alkartea Danerik paraje! izan zan, Derion. Alkartea 2004. urtean sortu zan eta hurrezkeroko eragile aktiboa izan da herriko



egunerokotasunean. Horretara, bada, hamaika kanpaina eta ekintza jarri dabe martxan derioztarrak eta txorierritarrak erosketak Derion egitera animatzeko. Ekintza horreetako batzuk oso erakargarriak izan dira, esaterako moda galak, beherapenak eta outlet-ak. Era berean, herriko komertzioetan gastetako diru-txartelak zozketatu dira bezeroen artean, baita igaz Athleticek Barçaren kontra jokatu eban finala ikusteko bidaia be. "Sustapen barria dogu udari begira", aurreratu deusku Lorena Argatzak, "Familia osorako bi-

daia zozketatuko dogu, maiatzean eta ekainean gure dendetan erosketak egiten dituenen artean. Irabazleak aukeratu ahal izango dau bidaia nora eta noiz egin gura dauen". Lorenak azaldu deuskun moduan, horrelako egitasmoek helburua betetzen dabe, herritarrek aldeko erantzuna erakusten ohi dabelako.

Lezaman be ekintza sorta zabala jarri dabe martxan herriko dendei bultzadea emoteko. Alkartea orain dala urtebete osatu eben eta ibilbide labur horretan zenbait idea eroan dabe praktikara. "Idea



Dendariak teknologia barriez baliau ahal dira, bezeroakaz harremanetan egoteko bide barriak zabaltzeko

Teknologia Parkera eta industriaguneetara beharrera datozan lagunak be badira bezero potentzialak

horreek alkarregaz batera jarri dogu mar-txan; hau da, alkatere barruan dagozan es-tablezimendu guztietan egin dira, modu orokor baten. Baina hemendik aurrera sektoreka batzeko erabagia hartu dogu, eta sektore bakotzak dituan beharrianak modu pertsonalizatuago baten aztertu. Izan be, ule-apaindegi batek dituan behar-izanak ez dabe zerikusirik taberna batek dituanakaz. Eta tabernariak be gitxi daki ulea ebagiteari buruz. Hobe da arlo bako-tzeko negozioak batu, egoera aztertu eta proposamenak ekartea alkartera. Al-kartetik lagundu egingo deutsegu propo-samenak edo egitasmoak martxan jarten", esan dau Jokinek.

Sortzeko bidean

Zamudioko merkatarien eta zerbi-tzuen alkatere oso gaztea da, hilabete bat-zuk baino ez ditu-eta. Alkatere bertako Udalak bultzatu dau, ezinbestekotzat jo-ten dabelako sektorea garatzeko. Horre-zaz gainera, beste egitasmo batzuk be sustatu dabez, Bizkaiko Foru Aldundiaren "Bono denda" kanpaina eta "Txikia txe-kea" besteak beste. Azken hori Udalak bult-zatutako kanpaina da, eta umea euki barri daben gurasoei diru-txeke bat emoten ja-ke herriko saltokietan gastau daien. Bes-talde, aurreikusi dabe txartel berezi bat ateratea herritarrek erosketak haregaz or-daindu daiezan.

"Sondikan Berton", tokiko merkatar-i-tza txikia dinamizetako, Udalak bultzatu

sarrerren salmenta
www.bbkk.es
bbk

BFA DFB
Bilaka Foru Aldundia
Foru de Bizkaia

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK ERÓSTOKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

ZINEA

LOS CROODS, UNA AVENTURA PREHISTORICA
90' AG (3D)
Apirilak 13, 18:00
Apirilak 14, 17:00

SI FUERA FACIL
134' EG-16 (2D)
Apirilak 13, 20:30
Apirilak 14, 19:30

ABUELOS AL PODER
105' AG (2D)
Apirilak 20, 18:00
Apirilak 21, 17:00

POR LA CARA
111' EG-12 (2D)
Apirilak 20, 20:30
Apirilak 21, 19:30

DIARIO DE GREG: DIAS PERROS
96' AG (2D)
Apirilak 27, 18:00
Apirilak 28, 17:00

OBLIVION
EG-12 (3D)
Apirilak 27, 20:30
Apirilak 28, 19:30

2D: 4 € 3D: 6 €

*ofiziarre: produktorearen behar-zanen arabera programazioak aldaketak jasau oteazkie

dauen kanpaina da. Kanpaina fase bitan garatu dabe. Lehenengo faseak tokiko komertzioak dauen garrantziaz eta abantailaz herritarrek jaubetzea izan dau helburu eta, horretarako, sustapen-materiala banatu da dendari eta bezeroen artean. Bigarren faseak herriko merkataria eta ostalariak bitzen dituan egitura egonkorra sortzea dau helburu eta, horren haritik, aitatu beharra dago lehenengo pausua emoten dabilzala alkartea sortzeko. "Herriko dendariak ez dogun alkarrengandik antz haundirik, bakotxak sektore baten dihardualako: optikea, fruta-dendea, liburu-dendea, lorak... Eta horregaitik ibili da bakotxa bere kabuz. Baina Udalaren laguntzari esker alkartea sortzeko itxaropena dogu egoerari buelta emoteko", esan dau izaskunek baikor-baikor.

Gogoia

Derion eta Lezaman be sustatu dira tokiko merkatarien aldeko ekintzak. Lezamako Udaletik azaldu deuskuen moduan, orain dala urte batzuk publizitate kanpaina bat jarri eben martxan, Done Jakue bidea egiten ebenek zein lezamarrek herriak eskaintzen eutsezan zerbitzuak ezagutu egiezan. Eta Derioko Udalak be hasiera-hasieratik emon deutse babesa eta laguntza herriko dendarien alkarteari eta ostalarien alkarteari, prestatutako egitasmoak aurrera eroan egiezan. Era berean, sektore biak dinamizeteko ekintzak bultzatu dira: Derio D'Artez eta Erdi Aroko azokea, adibide bi aitatzearren. Mankomunidade mailan, establezimendu ba-

Merkatarien alkarreak badira herriko eragile aktiboak, giroa eta bizitza sortzen dabe

Merkatariek inplikazio handiagoa eskatzen deutsee instituzinoei, jardureagaz jarraitu ahal izateko



riak zabaldu dira Egaz Txorierriren bidez, eta prestakuntza-ikastaroak be emon ditue. Ildo beretik, sektore ezberdinetako enpresak batzen dituen topaketak edo mahai ekonomikoak antolatu dira eta, Le-

zamatik esan deuskuenaren arabera, merkataritza, turismo eta nekazaritza arloetan jardun diran negozioen ordezkariak izan dira bertan. Jardunaldi horreek eskualdeko enpresen beharrianak eta ikus-

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 10-8 nabes
48160 Durio, Bizkaia
T.: 94 454 82 83 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA IAZI JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 54 29 56

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

ESTILISTA EVA ARDINES
NESKA-MUTILEN ILKAPAINOSIA

AmAr

Asteartea - Ostirala: Betatik-19etara
Larunbata: Betatik-14etara

Uribe Plaza, 1 - Bidea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 94 19; (Aurreko txanda)

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pinboak - Plater konbinatuak
8.00etatik irekia
WIFI gunea

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txorierrri mailan alkartzea proponidu dabe, eta ekintzak batera egin bailarako merkataritza sustatzeko

puntuak ezagutzea dau helburu, baita enpresen eta administrazioaren arteko hartu-emonen estutzea be.

Edozein modutan, merkatariek babes eta inplikazio handiagoa eskatzen deutsee instituzinoei, eta bideak erraztu, jardueragaz jarraitu ahal izateko. Eta gure herrietan bizitza sortzen jarraitu ahal izateko. Gogoia ez jake falta, eta azken bolada honetan establezimendu batzuk persianea betiko bajatu behar izan badabe, beste barri batzuk be zabaldu dira, Lezaman eta Larrabetzun adibidez.

Etxean bertan

Indarra alkartasunean dago eta hori ondotoxo ezagutzen dabe gure dendariak. Horrexegaitik erabagi dabe bat egitea. Are gehiago, Txorierrri mailako alkartasuna be proponidu dabe, eta ekintzak alkarregaz batera egin bailara osoko merkataritza suspertzeko. "Zamudio eta Sondikako alkarteen zain gagoz, ea ofizialki behingoz eratzten diran, eta guztion artean zerbait egiten dogun", aitatu deusku Lorena Argatxak. Ideak sobran ditue. "Denda eta arlo guztietako zerbitzuetan beharpenak egin leitekez, txorierritarroi zein Teknologia Parkera eta industriaguneetara beharrera datozanei zuzendutako sustapenak, Txorierrri mailako outlet-a... Derioko dendari batzuk Sospelan egin dan outlet baten egon gara orain dala gitxi, eta Bakio, Gorniz, Plentzia eta Mungiako dendariak be hartu dabe parte han. Derio mailan aurretik antolatutako genduan outlet-ean irabazi handiagoak euki genduzan arren, Sospelako esperientzia ondo egon zan eta Txorierrri ekarri leitekeala uste dot". Hareen ekintzen barri era egoki baten emotea be ezinbestekotzat hartzen dabe, eta publizitatekanpainak egin, txorierritar guztiok gure dendetan zer topau daikegun jakiteko, eta etxean bertan doguna kanpora erosten ez joateko.

Turismoa, aztertu beharreko aukerea

Ezagutzen ditugu aisialdi arloan Txorierrri eskaintzen deuskuzan aukerak? Jokin Batizek ondo ezagutzen dau industria-turismoa, bere establezimenduan behargin askok hartzen dabelako ostatu. Baina Teknologia Parkeaz, industriagunez eta lantegiez aparte, gure bailarak oraindino ganoraz aztertu ez diran hamaika aukera dituela pentsaten dau. "Urrustimendi dogu, Done Jakue Bidea, eleizak, ermitak, Burdin hesia, natura, mendi-ibilbideak, zubi erromatarrak, arestia, torretxeak eta abar luzea. Gainera, oso hurbil gara Bilbotik eta komunikabide egokiak be badoguz. Ahalegina egin beharko geunke aisialdiko turismoa edo asteburuko turismoa be bultzatzeko, horrek ondorio zuzena eukiko daelako gure establezimenduetan". Lezamarraren eretziz, arazoa da ez dakigula be-reizten gaituana saltzen, eta horren adibide Errioxako upeltegietatik egiten dan ibilbidea ipini dau. "Guk txakolina dogu. Are gehiago, Lezama jatorrizko deitorea daben upeltegi gehien dituan Bizkaiko herria da; zergaitik ezin dogu guk gure txakolinaren ibilbidea egin?".

Aitatu deuskun moduan, instituzinoen inplikazioa ezinbestekoa izango litzateke turismo arloa bultzatu gura bada, eta esan deusku dendariak eta ostalariak erraztasun handiagoak emon beharko leuskieela negoziak hobeto identifikatu ahal izateko, eta turistek be hobeto topetako. "Dendariak eta ostalariak be aztertu beharko geunke gure eskaintza, eta bisitarien beharrezanetara egokitu, zerbitzu hobea emateko. Eta jakina, gure bailarak eta guk eskaintzen ditugun aukerak behar bezala ezagutarazo, Txorierrri aisialdirako tokia bihurtzeko eta gure jarduerak suspertzeko".

Bisitariak hamaika aukera topau laikez gurean: torretxeak, zubi erromatarrak, mendi-ibilbideak, txakolin upeltegiak...



Zure animalia esku onetan

Lezama albaitaritzak klinikak zerbitzu integrala eskaintzen dau, etxeko animaliei zein abereei zuzenduta dagoana



Jose Ramón Galdona Lezamako albaitaritzak klinikaren buru da. Harek eskarmentu handia dau albaitaritzaren arloan, eta, horrezaz gainera, Txorierrin 2000. urtetik hona dabil beharrean. Halan, Lezamako Baserritarren Alkartegaz batera egiten dau behar elikadurearen esparruan eta orain dala urte batzuk euren pentsu marka sortu eben: Lezacan. Abereak be tratatzen ditu, eta horretarako baserrietara joaten da. Albaitariak profesionaltasuna eskaintzen dau, kalidadea, eskarmentua eta seriotasuna. Baita albaitaritzaren zerbitzu integrala be, arestian klinika jarri dualako martxan Baserritarren Alkartean bertan.

Lezama albaitaritzak klinikaren etxeko edozein animalia tratatzen ditue: txakurak, katuak, txoriak, untxiak... Klinikak medikuntza orokorrerako zerbitzua eskaintzen dau, eta tresneria modernoa dau animaliek euki leukiezan patologiak antzemateko. Era berean, harreman zuzena dabe beste klinika batzuekatz, beharrezkoa dan kasuetan tratamendu espezializatuagoa be emon ahal izateko, halan nola oftalmologia edo traumatologia arlokoak. Lehen aitatu dogun legez, Lezama albaitaritzak klinikak baserriko animaliei be emoten deutse zerbitzua eta albaitaria inguruko baserri eta ustiategietara mugiten da hareek ikustera. Besteak

Medikuntza orokorrak gainera, ebakuntza kirurgikoak egiten ditue eta larrialdiak artatzen ditue

beste, behiakaz, idiakaz, zaldiakaz, ardiakaz eta ahuntzakaz egiten dabe behar eta hareek euki ahal dabezan edozein gaixotasun edo arazo tratatzen dabe, osasun zein nutrizio arlokoa.

Zerbitzuak

Lezama albaitaritzak klinikaren txertoak jartzen deutseez animaliei eta barruko desparasitazioak (heste-zizareak, tenia...) eta kanpokoak (arkakusoak, akanak, zorriak...) egiten dabez. Mikrotxipak be jartzen ditue eta egin beharreko izapide guztiez arduratzen dira. Elektrokardiogramak egiten ditue, baita analisi klinikoak be. Azken honei jagokenez, aitatu beharra dago ohiko analisisiez gainera biokimika lehorra be erabiltzen dabela. Biokimika lehorrak aukerea emoten dau analisisiak azkar egiteko, eta, ondorioz, askoz azkarrago igarten da gaixotasuna edo arazoa non dagoan.

Beste alde batetik, ebakuntza kirurgiko bakunak be egiten ditue, adibidez zikiratzeak edo tumoreak kentzea, eta ospitalizazio-zerbitzua eskaintzen dabe, beharrezkoa bada animaliak klinikaren bertan lotu daitezana. Larrialdiak artatzeko zerbitzua be badabe, eta gau eta egun egoten da zabalik.

Orduetgia:

10:30 – 13:00 / 16:00-18:30

(Astelehenetik barikura)

10:00-12:00

(Zapatuetan)

www.consultoriaveterinarialezama.com



albaitaritza klinika

Medikuntza orokorra

Txertatzeak

Desparasitazioak

Mikrotxipa

Kirurgia

EKG

Analisi klinikoak

Ospitaleratzea

Ekografiak

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



94 455 56 19

Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

“Edonork ezagutu leike bere burua Pabloren gan”

t: Itxaso Marina / a: Platanoboligrafo

IGOR GARCIA | zine zuzendaria

Gidoia orain dala lau urte idatzi zenduan.

Bai, zine eskolako lehenengo urtean. Foru Aldundiak halako proiektuak diruz laguntzeko deialdia zabaldu eban eta bertan aurkeztu neban gidoia. Baina ez zan suerterik egon, eta gidoia kaxoi baten gelditu zan, apur bat ahaztuta. Orain dala pare bat urte, Platanoboligrafo produktzio-etxea sortu genduan lagun batzuen artean, eta egun baten gidoia hartu genduan hizpide. Proiektua aurrera eroan ahal izango genduala aitatu genduan, eta bera aztertzen hasi ginan. Gidoiaren hainbat alderdi landu genduzan eta formea emon geuntsan.

Zergaitik Down-en sindromea?

Egia esateko, ez neban hori argi euki hasikeratik. Protagonistea oso persona distraitua izatea gura neban, arerio-giro baten kokatua. Baina protagonistea ez ezik beste ume bat be agertzen da istorioan, oso bizkorra, eta, gidoia idazten nembilela, pentsau neban ondo egon eitekeela hain desberdinak diran kasu bi horrek batera aurkeztea. Izan be, behar honetan agirian itxi gura neban bakotxak konstan-

Sondikoztar hau *Superdown* film laburra editetan dabil egun hone-etan. Beraren bigarren beharra da eta Pablo dau protagonista nagusitzat. Down-en sindromea dauen hamar urteko mutiko bat da Pablo, eta supermerkaduan galdu da. Odisea txiki bat biziko dau bertan, berak bakarrik gaintitu beharko dauena.

tzia euki behar dauela bere mugak, bildurak eta abar gaintitzeko, eta horregaitik iruditu jatan egokia adimen-atzeratasuna daukan mutiko bat izatea protagonistea.

Aitatu beharra dago proiektua film labur bat baino gehiago dala.

Adimen-desgaitasunen eta Down-en sindromearen inguruan kontzientziatio-eta sentsibilizazio-kanpaina bat zabaltzea da gure helburua. Eta horretarako, hainbat ekimen eroan gura doguz aurrera. Adibidez, Estatu osoko ikastetxeetara zabaldu gura dogu *Superdown*, material didaktikotzat erabili daien, eta jaialdi bat antolatzea be pentsau dogu. Era berean, lan hau ahalik eta leku eta zine-jaialdi gehienetara eroango dogu.

Proiektu altruista izan da, bertan parte hartu dozuenok ez dozelako dirurik jaso zuen beharraren truke. Ez aktoreek, ez ekipo teknikoak... Zelako laguntzea euki dozue grabaketea egin ahal izateko?

Idea Sondikako Udalean aurkeztu genduan eta hasikeratik egin eben bat proiektuagaz. Laguntza bat emon euskuen, grabaketea egiteko erabili doguna. Era berean, adimen-desgaitasunen eta Down-en sindromearen arloan behar egiten daberen Estaduko alkarte guztietara eroan dogu proiektua. Oso behar neketsua izan da, baina azkenean babesu jaso dogu Down Asturias eta Araba Down alkarteetatik.

Eta lehen aitaturako asmoak aurre-eroateko?

Laguntza eta babes gehiago behar doguz. Proyectosuperdown.org webgunea jarri dogu abian, eta interesik daukan bertan kontsultau leikez proiektuaren zehaztasun guztiak. Laguntza ekonomiko ez ezik beste era bateko ekarpenak be egin leitekez bertatik.

Filmaren protagonistearen gainean egingo dogu berba. Nor da Pablo?

Oso ume distraidua da, baina oso gotsua be bai... Eta Down-en sindromea izan arren, beraren adineko edozein umek daukazan erreakzioak daukaz. Zailtasunak daukaz, guztiok daukaguzan moduan, baina hareek gaintitzeko gauza da, beste guztiok legez. Nire ustez, edozeinek





*“Sentsibilizazio-
kanpaina bat zabaldu
gura dogu adimen-
desgaitasunen inguruan”*

*“Filmean, agirian
itxi gura izan dot
konstantzia euki
behar dogula geure
mugak gainditzeko”*

Halakoen beharrak ez ninduen kezka-
tzen, ez. Eskarmentu handia daukie eta
badakie zelako ñabardurak emon behar
deutsiezan pertsonaiari, eta zergaitik.
Egia esateko, grabaketan baekien zer gu-
ra neban, eta gehienetan aurrea hartzen
eusten.

**Guztira, 22 lagun ibili zarie filma
grabetan. Zer esango zeunskigu ekipo
teknikoari buruz?**

Hasikeratik inplikazio handia eraku-
tsi dabela. Hau da, filmaren grabaketea
guztion proiektua izanik hasi eta amaitu
zan. Hori oso lorpen handia da, nire ere-
txiz. Bakotxak baekian zehatz-mehatz zer
egin behar eban, zergaitik ziran gauzak
era batekoak eta ez bestekoak... Askotan,
ez neban azalpenik be emon behar.

**Edizinoagaz laster amaituko do-
zue. Horren ostean?**

Ahaleginduko gara lehen aitatutako
proiektuak martxan ipinten. Filma Sondi-
kan eta Asturiasen proiektuak da, eta
ahalik eta zine jaialdi gehienetan aurkez-
tuko dogu: Bilbon, Getxon... eta mundu
osoan.

ezagutu leike bere burua Pabloren per-
sonaiagan.

Zelan ezagutu zenduan?

Down Asturias alkartearen bidez. Esan
behar dot hasikeran bildur handiagaz ibili
nintzala Pablok ez eukalako ezelako es-
karmenturik kamara aurrean. Gainera, ia
eszena guztietan agertzen da eta bildur
nintzan ez ete zan nekatuko... Baina eder-
to egin eban grabaketan. Gehiago be
esango neuke, beste ume batzuegan
ikusit ez dodazan trebetasuna eta kon-
tzentrazioa erakutsi zituan. Diziplina
handiko mutikoa da eta bera zuzentzea
oso erreza izan da. Grabaketea baino le-
hen, azarotik otsailera bitartean, proba-
saioak egin genduzan Pablogaz Oviedon,
eta probasaio horreek oso lagungarriak
izan ziran. Film laburra eta pertsonaia az-
tertzen ibili ginan, berak ulertu eta barne-
ratu eian zer gura genduan.

**Beharrean beste mutiko bat ager-
tzen da: Pedro.**

Mutiko bien arteko hartu-emona txar-
ra izan zedin bildur nintzan. Pedoren
pertsonaiaren castinga egiten hasi ginan
eta jaso genduan lehenengo bideoa ber-
rena izan zan. Pedrok badauka eskarmen-
tua antzeppen arloan –aktorea izan gura
dau– eta izugarri gustau jatan haren be-
harra, oso ondo egiten dau. Gainera, Ovie-
dokoa da bera be..., baina castingagaz
aurrera jarraitzea erabagi neban, badaez-
padan. Eta geroago –bizitzan kasualidade
handiak izaten dira– jakin neban Pablok
eta Pedrok alkar ezagutzen ebela, ikaste-
txe berean dagozalako. Horrek erabagia
hartzen lagundu eustan... Filma ez litzate-
ke bardina izango beste Pablo bategaz
eta beste Pedro bategaz.

**Eta eskarmentu handiko aktoreak:
Alex Angulo, tartean.**

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

- Menu bereziki antzerkian
- Etxeko ararutako platerak
- Bunkia antzerkian
- Egurien erreseta eta karta
- Jaurtizki eta esportak
- Jantoki zabala

B.º Gornaltoa, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Zamudio-Zugasti eta Txorierrri (III)

Urtarrilean Zamudio-Zugasti leinuaren historia kontatzen hasi ginen, eta zenbait ataletan aurkeztuko genizuela aipatu genuen. Esku artean duzue hirugarren eta azken atala

t/a: Sabin Arana

Aurreko aldizkarietan, artikulu-sail honi izenburua ematen dion leinuak, ezkontzei eta aliantzei esker XVII. mendera arte lotutako tituluak eta ondasunak erreparatu genituen. Besteak beste, ondare hauek zituzten Txorierrri: Larrabetzun, Santa Luzia kapela hiriko elizako presbiterioaren ondoan; eta hilobi bat Elizaldeko elizan, aldarearen aurrean. Olatxu-Zubieta burdinola eta Errotabarri errota ere bazeuzkaten, haien lurrak tartean; eta Goikoola eta Sarrikola burdinolen zati bat. Zugasti baserriaren –garai batean urkamendia izan zena– eta hiri ondoan zegoen dorrearen jabeak ziren, baita haien zegozkien lurren eta basoen jabeak ere. Zamudion ere bazituzten burdinola bi; Arteaga errota eta burdinola; Olabuniaga burdinola, errota eta baserria; Kadalso dorre-baserria; eta Zamudio-torrea, hainbat lurrez eta basoz gainera. Derion, Aresti burdinola zuten.

Ondasunak alde batera utzi, eta ezkontzei eta aliantzei ekingo diegu berriro. Aurreko artikuluan azaldu genuen bezala, Luisa Feijoo Novoa eta Zamudio-Zugasti Pedro de Toledo eta Leivarekin ezkondu zen. Senar-emazteek alaba bat eduki zuten: Francisca Maria, Diego Sarmiento de Acuña eta Sotomayorrekin ezkondu zena. Eduki zituzten seme-alabetatik García Sarmiento izan zen oinor-



Zugasti leinukoek Errotabarri errota eraiki zuten Elizalden, han errekan gora zuten errota zaharraren orde. Ohikoa ez bazen ere, errotari etxebizitza eta lur-eremua atxiki zizkioten hasieratik, hura errentan emateko asmoa zutelako. XX. mendearen hasieran, indar hidraulikoaz baliatuz, errotak elektrizitatea sortzen zuten Elizalde auzorako, eta zerratoki bezala ere bazeziren. Ugazaba berriak zituen garai hartan.

dekora eta aitarengandik Gondomarreko konde-titulua jaso zuen. Baina honek ez zuen seme-alabarik izan eta titulua Pedro bere anaiak hartu zuen oinordetzan. Gainera, Pedro Mancerako hirugarren markesa ere izan zen, titulua bere osabarengandik –Antonio Sebastián Álvarez de Toledo eta Salazar– jaso zuen eta. Espainiako handikia ere bazen.

*Leinuak 20tik
gora titulu
lotu zituen
bost mendetan
zehar*

Pedrok lau seme-alaba eduki zituen: Manuel, Teresa (moja sartu zen), Mariana de la Encarnación eta Joaquina Josefa. Gondomarreko konde-titulua Manuelek jaso zuen eta Zamudio-Zugasti leinuaren oinordekoa Mariana de la Encarnación izan zen. Marianak Mancerako markesgoa jaso zuen aitarengandik; eta Humaneseko kondesa-titulua, amarengandik. Baina ez zuen ondorengorik izan eta bere oinordeko Joaquina Josefa bere ahizpa izendatu zuten.

Joaquina Josefa Joseph Francisco Rivera Barrosorekin ezkondu zen eta Zamudio-Zugasti leinuko ondorengoek, ezkontzei esker, tituluak pilatzen jarraitu zituzten: Malpicako markesgoa, Medina de Rioseko duketza, Mirabeleko markesgoa, Montalboko markesgoa, Berantevillako kondetza, Arioneko duketza, Griñoneko markesgoa... Zerrenda luzea da, eta,

48195 LEZAMA (Bizkaia) Certificados número: 36

S.A.T. LEGU
SERVICIOS DE ASesoramiento y TRAslado de LEGALES

Tel: 94 455 64 17 Tel: 94 455 61 98


LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIA PRIMITIVA LOTERIEI ERRESERBAK
1-X-2 ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
SARITZARRA TABERNENTZAT, ETAB
EUROMILIOAK

ARITUALDE, 139 • 48195 LEZAMA (Bizkaia) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

URAS
Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugaldé, 14 behea
Tel: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)



Irudian errota eta burdinolaren deskribapen grafikoa dugu. Ezkerrean ikaztegia dago, eta haren jarraian ola edo fabrika, laba eta mailu nagusia. Ondoan, zurezko antapara dago, hiru gurgpil bertikal elikatzen dituena: bat, hauspoak mugitzeko, beste bat, mailua mugitzeko; eta azkena, eskuman ikusten den errota mugitzeko. Olak bere funtzioa galdu zuenean, Zamudio-Zugasti leinukoek etxebizitza bihurtu zuten ikaztegia, lur zati txiki bat atxiki zioten eta alokatu egin zuten. Izan ere, XIX. mendeko politika horixe izan zen. Hala, errotako partean beste etxebizitza bat eraiki zuten eta horri ere lur zati bat eman zioten. Arragoa zegoen lekuan gauza bera egin zuten.

egia esan, zorabiatzekoa ere bai, bost mendetan 20tik gora titulu lortu baitzituzten.

Bestalde, aipatu beharra dago leinuak Larrabetzun eta Asuako bailaran zituzten ondasunak, denborak aurrera egin ahala, balioa galtzen joan zirela, eta, ondorioz, urte gutxitan guztiak edo gehienak saldu zituztela. Era berean, sendiaren benetako jatorria ahaztu, eta Malpica esaten hasi zitzaion; eta Zamudiotorreari, hain zuzen ere, horregatik esaten zaio Malpica dorrea. Ondasunak administrazioaren bidez kudeatzen joan ziren, harik eta azkenean guztiak saldu zituzten arte.

Leinu hauek XV. eta XVI. mendeen hasieran –hau da, modernitatearen lehengo pausuak eman zirenean- lurraldearekiko erakutsi zuten inizatiba ezerezean gelditu zen aurrerantzean, errentak

hartu baino ez zituztelako egin. Berton zituzten azken ondasunak XX. mendearren hasieran saldu zituzten.

Handiak erregearen gortearen bueltan gizendu ziren, inolako ardurarik gabe eta bertokoen lanaren etekinak

eskuratzen zituztela. Hala, ez zitzairen inoiz bururatu herriak kultura bat zuela, lantzeko premia zuena. Ez zitzairen burutik pasatu handiek ere bazutela, besterik ezean, herriaren kulturarekiko begirune zorra: unibertsitatea sortzea, euskara lantzea... Laburbilduz, nobleziak ez zuen izenari dagokion jatortasuna erakutsi.



Euskadiko dirua, 1937. urtekoa



IRATXO
gazotegia
larta pertsonalizatuak
trufak
leioak
pastelak
pastak
Mikel Zurate, 2 - 3. lorain - Sondika, 48130 - 94 945 89 39

Izpilen
PARAFARMACIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. lorain - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

Centro Dental
Txorierri IMQ AEGON
Rocío Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
María Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella
Mitaina 8, behea - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larritaldia: 670 965 885 - www.txorierri.com

Eskuz esku Txorierritik

a: Aner Mentxaka



Zamudio

“Eman euskara elkarri” lelotzat zuela, Korrikaren 18. edizioa martxoaren 21ean sartu zen Larrabetzutik eta handik gure bailara osoa zeharkatu zuen. AEK-k urte birik behin antolatzen duen lasterketak Euskal Herri osoan zabaldu du euskararen aldeko mezua lau haizetara eta eskuz esku. Eta Txorierrik ere, betiko moduan, bat egin du aldarrikapenarekin. Mota guztietako herritarrek ongi etorria eman zioten Korrikari; agintariak eta elkardeen, enpresen eta sindikatuen ordezkariak, kultura eta kirol elkardeen kideak eta ikasleak eta irakasleak haien artean. Azken edizioetan, Korrika goizaldean ailegatu da Txorierrira, baina aurten bazkaldu ostean bisitatu gaitu. Hala ere, gehiago gurean gelditu gara, euskararen alde korrika egiteko, beste urte bi itxaron beharko dugulako. Ordura arte lan handia ere badugu egiteko.



Lezama



Goian, Loiu; behean, Erandiogoikoa



a: Garmintxa





Larrabetzu



Sondika



POLITEKNIKA IKASTEGIA
Txorierri
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laralde Heziketa eta Boparen Inklusibitatezako Ikastetxea

Uinzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK
(18.30etatik aurrera)
Apirilaren 16an
Maiatzaren 2an
Ekainaren 4an

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetakoa Teknikaria
- Salmen eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria

“Luze gabe aurkituko ditugu Lurretik kanpo oinarrizko organismo bizidunak”

JESUS ARREGI | astronomoa

Apirilaren 25ean ilargi-eklipsea egongo da ikusgai, eta berbalagun batzuk egun berezia ospatuko dugu: Jesús Arregi astronomoak tailerra eskainiko digu Larrabetzuko Elexaldeko txokoa, 20:30ean. Ordu bat beranduago, txitxiburduntzia afalduko dugu, eta, ostean, eklipsea ikustera joango gara, baita Saturno ikustera ere. Informazio gehiago nahi dutenei zuzenduta, apirilaren 22an Jesusek hitzaldia emango du Unai Ugalde fisikariarekin batera, Anguleri Larrabetzuko Kultur Etxean, 19:00etan.

Zer ikasiko dugu apirilaren 22an emango duzun hitzaldian?

Eklipseak: zein egoeratan gertatzen diren, zein eklipse mota gerta daitezkeen... Oinarrizko kontzeptuak azaldu nahi ditut, ilargi-eklipsea ikustera joaten garenean, guztiok gertatzen denaren eskema garbia buruan izan dezagun.

Antza, eklipse partziala izango da. Zehatz-mehatz, zer ikusiko dugu?

Ilargiaren zati bat Lurraren itzalpean sartuko da, eta denbora tarte batean

ilargi beteak izan ohi duen argitasuna eta zurtitasuna galduko ditu.

Tresna bereziren bat behar da eklipsea behar bezala ikusteko?

Ez, begi hutsez ikus daiteke. Hala ere, beti da interesgarria prismatikoak edo teleskopioa erabiltzea. Ilargi-eklipseak beti ilbetean gertatzen dira, eta Ilargiak aldi horretan duen argitasun handiak oso deseroso egiten du bere behaketa handitze-tresnekin. Eklipseak aukera ematen digu Ilargia ilbetean teleskopio bidez behatzeko, begiak mindu gabe.

Zelan hasi zinen Astronomia munduan?

Gaztetatik izan dudana zaletasuna da. Batxilergoa egiten nabilela hasi nintzen zeruaren gorabeheraz kezkatzen, eta Fisika ikasten hasi nintzenean gogor saiatu

nintzen irakurtzen eta zerua behatzen. Garai hartan, Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) ikastaroak eman nituen eta behaketak ere egin nituen teleskopio batekin. Makina bat gau pasatu ditut zerura begira, hotzak akabatu beharrean, baina gustura. Garai hartan hasi nintzen *Elhuyar* aldizkarian astronomiaren inguruko artikulua idazten, eta liburu pare bat idazteko aukera ere izan nuen: *Unibertsoa: big bang-etik gaur egunera* eta *Esne Bidea, gure galaxia*.


Irakaslea zara EHUn eta Zientzia planetarioen taldeko ikertzailea. Zein da zure lana ikertzaile moduan? Zertan zabilzate orain?

Zientzia planetarioen taldeko kideok planeten atmosferak ikertzen ditugu, baita hainbat kontu ere: geruzak, plane-



**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierr.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun





“Egunero erortzen dira Lurrera 100 bat tona materia, hauts eta hondar-pikorren tamainako aleetan”

ten barne-egiturak, sateliteak... Nik, zehazki, Jupiterren atmosfera aztertu dut. Lurrean zein espazio-ontzietan dauden teleskopioen irudiekin egiten dugu lan. Irudiak erkatu, bertako egituren higidura neurtu, emaitza guztiak grafikoetan antolatu eta ondoren interpretazio teorikoa egiten dugu. Hori da zailena, noski.

Zerura begiratzen dugunean, izarrak ikusten ditugu gehienok. Zer ikusten duzu zuk?

Jendeak uste du zientziak misterioa kentzen diola aztertzen duenari, baina ez da egia. Zerua egunez egun nola eta zergatik aldatzen den ulertzeak, izarrek bere argia nola sortzen duten jakiteak ez dio inondik inora edertasunik kentzen. Are gehiago, agian hurbilago egiten dute, aberatsago. Adibidez, arkitekto batek eraikin eder bat ikusten duenean, bi aldiz gozatzen du horretaz: eraikinaren berezko edertasunaz eta bistakoak ez diren xehetasun teknikoek. Antzeko zerbait gertatzen zaigu astronomoiei.

Non edo zein arlotan izango da hurrengo aurkikuntza?

Luze gabe aurkituko ditugu Eguzki-sisteman, Lurretik kanpo, izandako bizitzaren arrastoak edo oinarrizko organismo bizidunak. Argitaratu berri dutenez, Marten, harkaitz sedimentario batean, garai batean bizitza mikrobiarra izateko baldintza egokiak aurkitu dituzte. Era berean, Europako Agentzia Espazialak (ESA) ikerketa egingo du Jupiterren 2022rako, besteak beste planeta horren satelite batzuk aztertzeko. Hori betetzen bada, eragin izugarria izango du gizakiaren pentsamoldeetan.

Orain dela gutxi meteorito batek Errusian jo zuen. Zelan hartu behar ditugu holako fenomenoak?

Lurra eta beste planetak higitzen diren espazioa nahiko leku garbi eta hutsa da; hala ere, egunero erortzen dira Lurrera 100 bat tona materia, hauts eta hondar-pikorren tamainako aleetan. Gutxi gorabehera urtero iristen da kotxe baten tamainako harkaitzen bat. Horiek ikusgarriak izaten dira benetan, baina atmosferan erretzen dira eta ez dute kalterik eragiten. Bi mila urterik behin, 100 metro inguruko harkaitza erortzen da Lurrera, baina kilometrotik gora tamaina ez duten bitartean kalteak lokalak dira, ez globalak. Azkenik, giza- desagerraraz lezakeen meteorito bat milioi urte gutxi batzuetan behin eror daitekeen ustea dago. Gaur egun hasiak gara bitartekoak jartzen, inguruan horrelakorik balebil lehenbailehen aurkitzeko. Bada, nik gaur lasai lo egiten ez badut, ez da arazo horregatik izango.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

RUBEN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

R P A

MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinao 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

AM

FORMACION Y TRADUCCIONES

- INGELIS ESPANOLA
- MATEMATIKAK
- AZTERKETA OFIZIALAK
- EGITERO PRESTAKUNTZA
- ONLINE ONDUEZKOAK
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
- ITZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaiotza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 458 64 89

Errementeri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 88

Goiri'78 s.l.

Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAIISA

Ehngabeko orduologia

Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Euskararekin ala euskaraz bizi? Beleak eta basurdeak errudun

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Egunetik gauera oharkabean aldatzen gara, baita gaueko izar aldren dirdiratik gure eguzki amandera ere. Desberdintasuna betazaletan erakusten dugu, gauari begiak itxiz eta egunari zabalduz; oraingo honetan euskara zertan den ikusteko.

Gure berbetarekin, agian -"agian egün batez jeikiko dira egiazko euskaldünak..."- egunsentitik ilunabarrera bizi gara; optimismotik pesimismora; ia beti, errealitatearen gordina arakatu gabe. Eta itauna da, ea XXI. mendekook, euskararekin bizi garen ala euskaraz?


Jakina da euskararekin bizi garena, euskara ere gure artean dela; kasurako, jaietako programetan ekologiarenean aldarmenean aldarrikaturik. Baina euskaraz bizi? Ez ete da ordua analisi eta txekeorik ausartena egiteko?

Felipe errotariak aurten artorik ez ereitea erabaki du, basurdeak eta beleak ugaritu direla-eta. Bele beltzak erne berritan jaten dizkiotela artoak; basurdeek artaburudun direnean. Felipek ez ditu aintzat hartzen bizkarrean daramatzan laurogeita bost urteak, beharri eskaini

dizkion hamaikaxo egunsenti edo gau ordu. Ez da ohartzen zelan gorputza ahuldu zaion; lanerako adorea makaldu. Ondorioz, gurago du errua beleei zein basurdeei bota, itxura hutsezko autoestimantira irauteko bada ere.


Euskaraz bizi ala euskararekin? Batak esango dizu, orain krisitik irtetea dela

premiazko; besteak, erdaldunekin eroapena behar dela, alegia, pazientzia; hurrengoak defendatuko dizu boterera iristeko euskara *lighta* behar dela. Finean eta buruan, euskararekin zirt edo zart ez egitearen errua, aurten artoa ez ereitearena, beleena eta basurdeena dela, ez euskaldunon epelkeriarena.

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**GAMINIZ
JATETXEA**



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



Club Hípico Aretxalde

Pony club · Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak · Apopito zerbitzua
Salto · Txangoak · Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 39 • 48196 LEZAMA



LEJARRENE JATETXEA
Garaileitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 85 46



ZORIONAK!



Zorionak Hodei! Ezin sinetsi bost hilabete pasatu direla...



Zorionak Imano! Etxeko txikitxoaz hazten doa...



Gabriel, Zaldi gainean beste horrenbeste urte bete ditzazula!



Hori egun ederra, Marta! Iron Maiden taldearen kontzertuan berriro ospatuko dugu



Zorionak Uxue! Izeko Inmaren partez

Zure umea jaio berri da; zure arreba urteak bete ditu; Zure lehengusina ezkondu egin da... Momentu ederrak... Ospatu txorierritar guztiekin! Eta maite dituzunak ustekabeaz harrapatu!

BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor! lagunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- Hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera





Arrautzak, foiez eta onddoz beteak

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 arrautza
- 100 g kataifi pasta
- 25 g gula
- 25 g onddo
- 25 g foie
- Makailao-azalak
- Porru bat
- 3 berakatz-atal
- Pipermin bat
- Sukaldeko filma
- Kiwi zukua
- Izotz sikua
- Gurin apur bat

Prestateko errea:

Makailao-azalak eta berakatz-atal oriotan ipini eta azukre apur bat botako dogu. Ondoren, pil-pil saltsea egingo dogu makailao-azalen gelatineagaz eta orioagaz. Geroko gordeko doguz. Gulak arin prijiduko doguz su bizian beste berakatz-atal batez, eta hareek be geroko gordeko doguz. Beste berakatz-

atala eta onddoak xaflatan ebagi eta arin prijiduko doguz. Porrua be zatitu eta arin prijiduko dogu.

Habia bat egingo dogu kataifi pastea-gaz. Horretarako, molde txiki batzuk hartu eta pastaz beteko doguz. Habia bakotxean gurin apur bat ipiniko dogu eta laban sartuko doguz 15 minutuan, 180 gradutan. Labatik atera eta, hotzitzen diranean, moldeetatik aterako ditugu.

Beste alde batetik, flanak egiteko lau molde hartuko doguz eta bakotxean arrautza bat, foiea eta onddoak ipiniko doguz. Moldeak filmaz forratuko doguz eta bost minutu inguru eukiko doguz irakiten. Kazuela baten ura ipiniko dogu izotzagaz, eta bertan hotzitzuko doguz arrautzak.

Arrautzak moldeetatik atera eta habietan ipiniko doguz. Gaietarik gulak, pil-pil saltsea eta porrua botako deutseguz. Habia bakotxa plater baten ipini eta haren inguruan kiwi zukua eta izotz sikua ipiniko doguz.

Etxeko sukaldaritza

Itsas zapoa, ziza eta txirlakaz

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 zapo zati (250 gramokoak)
- 600 g ziza
- 300 g txirla
- Ardao zuria (basokada bat)
- Arrain-saldea (basokada bat)
- Urun apur bat
- Perexila
- 3 berakatz-atal
- Kipula bat
- Orioa
- Gatza

Prestateko errea:

Kipulea eta berakatzak txikitu eta buztinezko kazuela baten ipiniko doguz orio apur batez, su gozoan. Zapoari gatza bota eta uruneztatu egingo dogu. Kipulea eta berakatzak kolorea hartzen hasten diranean, zapoa gehituko dogu. Minutu bi pasau ondoren, buelta emongo deusagu zapoari, eta ardao zuria botako dogu. Lau edo bost minutu gehiago eukiko dogu egosten. Zizak, txirlak eta arrain-saldea gehituko deusaguz arrainari, eta bost edo sei minutu gehiago eukiko dogu. Noizik behin eragingo deusagu mobimentu zirkularrak eginez. Eginda dagoanean, perexil apur bat botako dogu gaitetik.



KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitolza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIJA)

HORTZ KLINIKA
Idoia Zubietza
Osasun-zerbitzu & Hortz-zerbitzu
HORTZ ANPLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HAURRAK ZEN HEDATIA
Dr. Arcelia kalea, 11 - 1. era. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

LEANDRO LANDETA
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



aritz eta nagel
aikor! 2013ko martxoaren 21ean

Hileko galdera

Nondik dator @ sinboloa?

Sinbolo hori Interneten eraginez da ezaguna, helbide elektronikoetan-eta erabiltzen dugulako. Euskaraz, "a bildua" esaten diogu; "arropa", gaztelaniaz. Antzina arropa ad preposizio latindarraren laburdura zen (a, gaztelaraz). Era berean, arropa neurriaren laburdura ere bazen. Arropa masa eta pisua neurtzeko erabiltzen zen eta kintal bateko laurdena zen, hau da, 25 libra. Hala ere, lekuaren arabera arropak balio bat edo bestea izaten zuen: 11,5 kilo Gaztelan, 10,4 kilo Katalunian, 12,5 kilo Aragoian. Gaur egun ikurra eraikuntzan ere erabiltzen da, planoak idazteko orduan hain zuzen ere.

Sudokua

								7
			3		7	4		8
				6			1	
	6				8			
4				7	3			2
			2					6
6	9		1	4				
		2					9	1
			7	9		2		

1	8	3	7	9	5	2	6	4
7	4	2	8	3	6	5	9	1
6	9	5	1	4	2	8	7	3
3	7	8	2	5	9	1	4	6
4	5	1	6	7	3	9	8	2
2	6	9	4	1	8	7	3	5
8	2	7	5	6	4	3	1	9
9	1	6	3	2	7	4	5	8
5	3	4	9	8	1	6	2	7

Garmendia ardoak

Pinca pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Azokak

Larrabetzu

- > Txakolinaren Eguna. Apirilaren 7an.

Erakusketak

Sondika

- > Olio-pintura udal ikastaroa. Apirilaren 8tik maiatzaren 3ra arte, erakusketa gelan.

Sondika

- > "Japón", Iñaki Urizarren eskutik. Apirilaren 4tik 27ra, Kultur Birikan.
- > "Retratos en la ciudad", IZE Zamudioko argazki elkartearen eskutik. Apirilaren 8tik 28ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Zamudio

- > Alkoholiko anonimoak. Apirilaren 17an, 18:00etan, Zamudiotorreko hitzaldi gelan. Lagunandre taldeak antolatua.
- > Meditazioa. Apirilaren 20an, 11:00etan, Zamudiotorreko hitzaldi gelan.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Jon Alonsoren *Zintzoen saldoan*. Apirilaren 18an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Hazkunderako gaitasunak eta baldintzak. Apirilaren 26an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Bizigune zabal elkarteak antolatua.

Ikastaroak

Zamudio

- > Lehen sorospenak. Apirilaren 11n, 18an eta 25ean, 17:00etan, kultur etxean.
- > Pilates eta Zen meditazio ikastaroetan izena ematea: apirilaren 26ra arte.

Ikuskizunak

Sondika

- > Umeentzako ipuin kontalaria. Apirilaren 19an, 18:00etan.
- > Abesbatzen emanaldia: Txuma Olagüe, Uri-Oste orfeoia eta Mendi-ona. Apirilaren 6an, 20:00etan, elizan.
- > Abesbatzen emanaldia: Txuma Olagüe eta Areatzeko musika banda. Apirilaren 27an, 20:00etan, elizan.

Derio

- > Areto dantzen erakustaldia. Apirilaren 26an, 20:30ean, Kultur Birikan.

Zamudio

- > "Motxila bete ipuin", hiru urtetik gorako umeentzako saioa. Apirilaren 20an, 11:30ean, liburutegian.

Lezama

- > Abesbatzen emanaldia: Ekidazu, Jose M^a Arregi eta Lamiñe. Apirilaren 27an, 20:00etan, elizan.

Larrabetzu

- > Sarkor eta Larregi taldeen kontzertua. Apirilaren 20an, 22:00etan, Hori Bai gaztetzean.

Irteerak

Sondika

- > La Cedilla – Zalla, apirilaren 21ean. Izena ematea: apirilaren 18ra arte, liburutegian.

Lezama

- > Erromanikoaren ibilbidea – Mena Haranaren BTT Zentroa. Apirilaren 21ean, Zorribike elkarteak antolatua.

Zamudio

- > Opakua-Azazeta. Apirilaren 13an. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Castejon, nagusientzako irteera. Apirilaren 6an.
- > Zugaztieta, apirilaren 14an. Txinpas-mendi guraso elkarteak antolatua.

Lehiaketak

Zamudio

- > Txori kantarien lehiaketa. Apirilaren 28an, Bidekoetxe parkean.
- > Balkoi apainduak. Izena ematea: apirilaren 15etik 26ra arte, udaletxean.



Larrabetzu

- > VI. Emakumezkoen txirrindularitza lasterketa. Apirilaren 14an, 10:00etan. Txorierri txirrindularitza elkarteak antolatua.

Bestelakoak

Derio

- > Tokiko Agenda 21. Apirilaren 17an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Benidormera bidaia izena ematea: apirilaren 2tik 12ra, udaletxean.
- > Zuhaitz eguna. Apirilaren 10ean, 17:30ean, Bidekoetxe parkean.

Larrabetzu

- > Eraikuntza-jolas erraldoia, adin guztietako lagunei zuzenduta. Apirilaren 21ean, 12:00etan, Anguleri kultur etxean. Bizigune zabal elkarteak antolatua.



Saketeko telefonoa: 967 67 73 00
NEINVER pol. - Ebezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
☎ faxa: 94 452 25 87
patxicoop@patxi.coop



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808



ESPEZIALITATEA PINTXOAK
Rafael Garcia Tejero
Diz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Mobil: 607 406 813

HILEKO ESKAINTZAK

Gorbeia, 7 -ZAMUDIO- 94 655 90 06

GORBEIA MERTZERIA



%10^{eko}
deskontua

Gure
produktuetan

Leizaola plaza, 7 -ZAMUDIO- 94 655 93 69

AMA3 TABERNA

Krema ezberdin bat egunero



3 €

Krema + pintxo

Mungialde et., 20 -DERIO- 94 454 26 32

LEIRE BEGOÑA ILEAPAINDEGIA

Pedikura erdiiraunkorra
+
Manikura iraunkorra

30 €



Uribe, 7 -DERIO- 94 454 15 87

ALDEKONE HORTZ-KLINIKA



350 €
Inplanteak

180 €
Hortzak zuritzea
+
Garbiketa

Txorierri et., 15 -SONDIKA- 94 453 33 75

PRO AUDIO



119 €
+BEZa

Tomtom XXL
Europa S

%10^{eko}
deskontua

Gainontzeko
produktuetan

Mikel Zarate, 2 -SONDIKA- 94 453 16 77

SONDIKA LIBURUDENDA

Maimeri markako
olioen egurrezko
maletan



%30^{eko}
deskontua



%30^{eko}
deskontua

Titan markako olio
egurrezko maletan

Uribe, 14 -DERIO- 94 612 19 55

AMALUR URDAITEGIA

Artisau-urdaiazpiko
egosia

%10^{eko}
deskontua

10 €
kiloa

Etxean egindako
kroketetan



Titan markako
olioetan

%10^{eko}
deskontua





ASCENSORESANBOTO

www.ascensoresanboto.com



24
ordu

94 674 18 98



Bulegoa: 94 653 19 19
Sakelakoa: 674 494 883
info@ascensoresanboto.com



igogailuak instalatzeko konponbide integralak

SANGRONIZ BIDEA, 6
4V MODULUA - 48150 SONDIKA

LEIZAOLA LEHENDAKARIA PLAZA
1. LONJA - 48170 ZAMUDIO

BELAKO, 2 ELKARTEGIA - LUISENE 2
A2 BULEGOA - 48100 MUNGIA

URTE BATEKO
MANTENTZE-LANAK,
DOAN